



Uribeganekoa (-a) etxebizitza

Aldaerak:

Ahozkoa: Uribegānekúe



43° 10' 3"

2° 33' 27"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casería titulada Uribeganecoa... situada en la barriada de Ocango jurisdicción de la Antei-glesia de Berriz, que comprende ciento treinta y dos estados cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de una vivienda con piso bajo y alto a manera de entresuelo, con su zaguán y accesorio...”
DJE 1/148 or. (1865)

Bizitza bakarrek baserri honen gaineko lehen-dabiziko erreferentzia 1796koa da, hots, *Uribeganecoa* (BAHP, A78/7), eta gerora izen horrekin mantendu da inongo aldaketarik gabe: *Uribeganecoa* (1825, PE/1825), *Urive Ganecua* (1905) BUA, 40. or.) eta *Uribeganecoa* (1967, BUA, CE). Auzotarren artean, *Uribegānekúe* da formarik erabiliena. Egun, baserriak *BEACI* arrautza-ekoizleen enpresa hartzen du.

XIX. mendeko baserri etxea, goranzko tendentzia bistan duena, eta erdialdea indartzeko intentzioa ere bai. Bere eskema sinplea da. Beheko pisuko erdi-erdian atarte zabala dauka,

arku eder batek babestua. Gaineko solairuan, balkoi txikia, lerrokatuta. Eta gorengoan, alde-tik alde, balkoi luzea, biak burdinazko karela-z. Alboetako bi ardatzetan, leihoak, txikiagoak ganbarakoak izanik. Bi isuritako teilatua dauka, hormak guztiz enfoskatuta eta pintatuta daude, eta etxearen kantalak, arkua eta bao guztien ertzak harlanduaz indartuta. Inskripzio batek diosku nortzuek eta noiz berregin zuten etxea: *“RE-EDIFICADA PORDON / JUANUNZUETA Y DOÑA / MARIAURIBEGANECOA CON- / SORTESAÑO 1913”*

toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian lehenengo osagaia auzo izena izaten delako. Sarritan auzo izenaren oinarria etxe baten izena da. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitzen zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortzen zen eta etxe guztiek zuten hasiera bera zuen izena. Ahoz, gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan Uribe auzoan goiko aldean dagoen etxea da (**Ikus Uribéaldekoa**).